

# **KIROL ZERBITZUKO EKINTZAK BURUTZEKO COVID-19AREN AURRERAN JARDUTEKO PROTOKOLOAK**

Protokolo hau, Mondragon unibertsitateko Kirol Zerbitzuak garatu du, berak antolatzen dituen ekintzetara eta erabiltzaileetara egokituta, Eusko Jaurlaritzak eta fakultateek ezarritako arauak erreparatuz.

## AURKIBIDEA

|                                                                                              |           |
|----------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| <b>1- JUSTIFIKAZIOA, HELBURUAK ETA APLIKAZIO EREMUA</b>                                      | <b>4</b>  |
| 1.1. Justifikazioa                                                                           | 4         |
| 1.2. Helburuak                                                                               | 4         |
| 1.3. Aplikazio esparrua                                                                      | 5         |
| <b>2.- PROTOKOLOAREN ARDURA DUTEN ORGANOAK ETA PERTSONAK</b>                                 | <b>6</b>  |
| 2.1. Erakundearen osasun arduraduna                                                          | 6         |
| 2.2. Erakundeko zuzendaritza- edo administrazio-organoa                                      | 7         |
| 2.3. Inplikaturak dauden beste eragile batzuk                                                | 7         |
| <b>3- PREBENTZIO-ELEMENTUAK</b>                                                              | <b>8</b>  |
| 3.1. Prebentzio- eta higiene-neurri orokorrak                                                | 8         |
| a. Jende- pilaketak saihesteko antolaketa-neurriak                                           | 8         |
| b. Eskuen higiena                                                                            | 8         |
| c. Garbiketa eta desinfekzioa                                                                | 9         |
| d. Espazioak eta instalazioak aireztapena                                                    | 9         |
| 3.2. Musukoaren erabilera                                                                    | 9         |
| 3.3. Jarduerak: txapelketak, irteera eta ikastaroak, norberaren kabuz eta beste proposamenak | 10        |
| 3.3.1. Txapelketak                                                                           | 10        |
| 3.3.2. Irteerak eta ikastaroak                                                               | 12        |
| 3.3.3. Norberaren kabuz                                                                      | 13        |
| 3.3.4. Proposamen gehiago                                                                    | 14        |
| 3.4. Jardueren lotutako beste elementu batzuk                                                | 15        |
| 3.4.1. Jarduerak aire zabalean                                                               | 15        |
| 3.4.2. Materialaren erabilera                                                                | 15        |
| 3.4.3. Aldagelak                                                                             | 15        |
| 3.4.4. Laguntzaileak edo ikusleak                                                            | 15        |
| 3.4.5. Kirol-praktikarako edukiera                                                           | 16        |
| 3.4.6. Agurrak eta ospakizunak                                                               | 16        |
| 3.4.7. Joan-etorriak                                                                         | 16        |
| <b>4- COVID-19 KASUEN AURREAN JARDUTEKO PROZEDURA</b>                                        | <b>17</b> |

|                                                                     |           |
|---------------------------------------------------------------------|-----------|
| 4.1. Partaidearen jarduketa                                         | 17        |
| 4.2. Kirol Zerbitzuaren jarduketa                                   | 17        |
| 4.2.1. Pertsonalgoaren/parte-hartzaileen erregistro                 | 17        |
| 4.2.2 Covid-19ko kasu baieztatuak                                   | 18        |
| 4.2.3. Covid-19 sintomak jarduera aurretik                          | 18        |
| 4.2.4. Covid-19 sintomak jardueran zehar                            | 18        |
| 4.2.5. Erakundeko beste pertsona batzuekin komunikazioa             | 19        |
| <b>5- DIZIPLINA-NEURRIAK ETA HAUEK BETETZEN DIRELA KONTROLATZEA</b> | <b>20</b> |
| <b>6- PROTOKOLOA ETA HARTUTAKO NEURRIAK HEDATZEA ETA EZAGUTZEA</b>  | <b>21</b> |
| HEDAPEN OROKORRA                                                    | 21        |
| JAKINARAZPEN/SENTSIBILIZAZIO ESPEZIFIKOAK                           | 21        |
| <b>7- EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA</b>                                 | <b>22</b> |
| ZUZENDARITZA-ORGANOAREN BILERAK                                     | 22        |
| BILERAK TEKNIKARIEKIN                                               | 23        |
| TEKNIKARIEN ETA KIROLARIEN ARTEKO BILERAK                           | 23        |
| <b>8- ERANSKINAK</b>                                                | <b>23</b> |

# 1- JUSTIFIKAZIOA, HELBURUAK ETA APLIKAZIO EREMUA

## 1.1. Justifikazioa

Unibertsitate garaian jarduera fisikoa eta bizimodu osasuntsuak izatea duen garrantzia ikusita, Kirol Zerbitzutik jarduera fisikoan sustapenean lanean jarraitzea garrantzitsua dela uste dugu. Lan hau era egokian eta osasun egoerak eskatzen dituen moldaketak egiteko hurrengo protokoloa garatzera eraman gaitu.

Protokolo hau, Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren sailak, kirola eta jarduera fisikoko ekintzak antolatzeko argitaratu dituen protokoloetan eta fakultate bakoitzak argitaratu dituen protokoloetan oinarritu gara.

Hauek dira kontutan izan ditugun protokoloak:

<https://www.euskadi.eus/pautas-actividad-fisica-y-deporte/web01-a2kirola/es/>

[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/kirolean\\_jarraibideak\\_covid19/es\\_def/adjuantos/PROTOKOLOAK-2020.07.24-Gomendioak-.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/kirolean_jarraibideak_covid19/es_def/adjuantos/PROTOKOLOAK-2020.07.24-Gomendioak-.pdf)

<https://www.mondragon.edu/eu/eskola-politeknikoko-2020-2021-ikasturteko-jarduerak-garatzeko-plana> (GEP)

<https://www.mondragon.edu/documents/20182/835128/Protocolo+COVD+2020-2021/8dd3b2ce-1261-4988-864b-ce912b3dc35a> (ENP)

<https://www.mondragon.edu/documents/20182/1012134/Covid-19+Protocolo+ESP+%283B%29.pdf/d3882477-d2b7-432e-8c3c-18716ec023ee> (Huhezi)

## 1.2. Helburuak

Kirol Zerbitzuak, protokolo honekin duen helburu nagusia honako hau da:

- Kirol-jarduerak segurtasun-baldintzatan antolatu, eta, horretarako, dagozkion prebentzio- eta higiene-neurriak ez ezik, COVID-19arekin erlazionatutako kasuak edo egoerak hautematen direnerako jarduketa-jarraibideak ezarri.

Helburu hori lortzeko, oinarritzeko da:

- Unibertsitatea osatzen duten pertsona guztiei erantzukizun indibidualaren eta kolektiboaren garrantziaren berri ematea, guztiak horren inguruan sentibilizatu eta kontzientziaztea, eta arriskuei aurrea hartzeko eta kasu baten aurrean jarduteko jarraibideak ematea.

Horrela, funtsezkoa da protokolo honetan jasotako helburuak, neurriak eta orientabideak behar bezala komunikatzea/hedatzea, baita horiek etengabe ebaluatzea ere, jarraipena etengabea izan dadin eta, hala badagokio, aurrean ditugun egoera aldakor eta berrietara egokitu ahal izan dadin.

## **1.3. Aplikazio esparrua**

Protokolo hau aplikatuko da Mondragon Unibertsitateko Kirol Zerbitzuak antolatzen dituen era guztietako jardueretan.

## 2.- PROTOKOLOAREN ARDURA DUTEN ORGANOAK ETA PERTSONAK

### 2.1. Erakundearen osasun arduraduna

Mondragon Unibertsitateko fakultate eta kanpus bakoitzak, beraien protokolotan adierazi duten bezala, beraien osasun arduradunak zehaztu dituzte, beraien egin beharrak bertan ikusi daitezkelarik. Kirol Zerbitzuak ere, berak antolatzen dituen ekintzetarako bere arduraduna zehaztuko du, ekintzen eta fakultateen arabera horrela izango delarik:

GEP: Malen Ruiz de Azua

Enpresagintza: Ander Uriarte

Huhezi: Oinatz Agirre

Mondragon Unibertsitatea orokorra eta Bilboko kanpusa: Gorka Martinez de Lahidalga

Pertsona hori izango da protokoloaren arduradun teknikoa, eta berak zainduko ditu horren dinamizazioa eta funtzionamendu egokia.

Honakoak izango dira bere eginkizunak, zehatzago adierazita:

- Kirol Zerbitzuko ekintzetan jarduten diren guztiei jakinaraziko dizkie ezarrita dauden prebentzio-, jarduketa- eta, hala badagokio, diziiplina-neurriak. Jatorrizko informazioa nahiz ondoren egindako edozein aldaketa jakinaraziko die.
- Gainbegiratuko du inork ez duela jarduera hasiko protokoloaren berri baduela, protokoloa onartzen duela eta betetzeko konpromisoa hartzen duela jasotzen duen agiria sinatu eta bidali arte.
- Etengabe gainbegiratuko ditu jarduerak, hain zuzen, protokoloan jaso diren prebentzio- eta higiene-neurri guztiak eta eskumenak dituzten agintariek ezarritako gainerako arauak betetzen direla ziurtatzeko.
- Jarduketa koordinatuko du eta beharrezko komunikazioa ezarriko du osasun-agintariekin eta/edo eragindako pertsonekin baldin eta jarduerak garatzen diren bitartean sintomak dituen pertsona bat edo COVID-19 kasu bat hautematen bada.
- COVID-19ari aurre egiteko prebentzio-neurriak ez betetzeagatik eragindako arriskuekin zerikusia duten arau-haustek erakundearen barne-araubideko edo diziplinako erregelamenduan sartzeko proposamenak garatuko ditu eta gobernu- edo zuzendaritza organora bidaliko ditu haiek onar ditzaten.
- Protokoloa betetzen ez den kasuetan erakundeko zuzendaritza- edo administrazio-organoak hartu beharreko diziiplina-neurriak ezartzeko proposamena egingo du.

- Beharrezko kudeaketak egingo ditu protokoloarekin zerikusia duen informazioa kirol zerbitzuaren webgunean jarrita egon dadin. Jatorrizko informazioa nahiz ondoren egindako edozein aldaketa jarriko da.
- Protokoloari buruz egiten den edozein informazio-eskaerari erantzungo dio.
- Protokoloa etengabe ebaluatuko du eta, hala badagokio, hura egokitzeko proposamenak helaraziko dizkio erakundeko zuzendaritza- edo administrazio-organoari.

## **2.2. Erakundeko zuzendaritza- edo administrazio-organoa**

Honakoak izango dira erakundeko zuzendaritza- edo administrazio-organoaren eginkizunak:

- Erakundeko osasun-arduraduna izango den pertsona izendatu.
- Protokoloa eta, hala badagokio, protokoloan egiten diren aldaketak onartu.
- Hala badagokio, COVID-19ari aurre egiteko prebentzio-neurriak ez betetzeagatik eragindako arriskuekin zerikusia duten arau-haustek erakundearen barne-araubideko edo diziplinako erregelamenduan sartzeko proposamenak onartu.
- Dagozkion diziplina-neurriak ezarri protokoloa betetzen ez den kasuetan.

## **2.3. Inplikaturik dauden beste eragile batzuk**

Protokoloa behar bezala eta modu seguruan ezartzeko, ezinbestekoa da kirol zerbitzuarekin elkarlanean diharduten beste erakundeekin (kirol enpresak, gimnasioak, kiroldegia...) inplikazioa, eta hauen protokoloak ere aztertuko dira gure ekintzak antolatzerako garaian.

## 3- PREBENTZIO-ELEMENTUAK

Elementu hauek garatzeko orduan, Kirol Zerbitzuak antolatu dituen ekintzak, hauek dituzten ezaugarrien arabera sailkatu eta multzokatu dira:

- Irteera-ikastaro ataletan 2 kasu ezberdintzen dira: kanpo enpresa (gu bitartekari) edo guk zuzenean antolatutako jarduera (elkarekin).
- Txapelketa ataletan, ikasleen arteko kontaktu mailaren arabera sailkatuko da (jokamoldearen arabera).
- Zure kabuz atala.
- Proposamen aktibo gehiago atala.

Jarraian azalduko ditugu elementu denak.

### 3.1. Prebentzio- eta higiene-neurri orokorrak

Kirol Zerbitzuko ekintzetan, bakoitza antolatzen den instalakuntzaren barruan parte hartuko du Mondragon Unibertsitateko komunitateak. Era orokorrean bi ekintza mota ikusi ditzakegu, batetik, kirol zerbitzuak unibertsitateko eraikinean zuzenean antolatutako ekintzak eta bestetik, kanpo enpresa edo instalakuntza batetan antolatzen direnak.

Kanpoko enpresa edo instalakuntzetan antolatzen diren ekintzetan, hauek jarritako prebentzio neurriak errespetatuko dira eta parte hartzaileei hauen berri emango zaie.

Honetaz gain, unibertsitatean bertan burutzen diren jardueretan, bertako protokoloak ere hartuko dira kontuan.

Ondorengo puntuetan zehazten dira hartuko diren neurri espezifikoak:

#### a. Jende- pilaketak saihesteko antolaketa-neurriak

##### Unibertsitateko instalakuntzetan:

- Unibertsitateak eta Eusko Jaurlaritzak jarduera fisikoa egiteko ezarritako aforoak errespetatuko dira.
- Unibertsitateak ezarritako ibilideak errespetatuko dira.
- Pilaketak ekiditzeko txandak antolatuko dira eta puntualtasuna eskatuko da.
- Saioa amaitzean instalakuntza ahalik eta azkarren uztea eskatuko da.

##### Kanpo instalakuntzetan:

- Pilaketak ekiditzeko txandak antolatuko dira eta puntualtasuna eskatuko da
- Kiroldegiko arauak errespetatuko dira (sarrera-irteerak, zirkulazio ibilbideak, aforoak, ...).
- Saioa amaitzean instalakuntza ahalik eta azkarren uztea eskatuko da.

## **b. Eskuen higieena**

### **Unibertsitateko instalakuntzetan**

- Elkargunera sartu aurretik, unibertsitatean dauden gel hidroalkoholikoaz garbitu beharko dituzte eskuak.
- Monitore/irakasleak gel hidroalkoholikoa ere eskura izango du beti, zalantza kasuetan erabiltzeko edo saioaren bitartean beharrezkoa denetan.
- Saioa amaitzean, instalakuntzatik irtetzean berriz garbituko dira eskuak bertako gelarekin.

### **Kanpo instalakuntzetan:**

- Instalakuntzara sartzean, bertan dauden gelak erabiliz garbituko dira eskuak.
- Saioa amaitzean, instalakuntzatik irtetzean berriz garbituko dira eskuak bertako gelarekin.

## **c. Garbiketa eta desinfekzioa**

### **Unibertsitateko instalakuntzetan**

- Saioan zehar materialik ez erabiltzea lehenetsiko bada ere, materiala erabiltzeko kasuan, amaieran begiraleak dena desinfektatuko du spray eta oihala bat erabiliz. Material jakinen bat ikasle batek erabili ondoren, beste batek erabili behar bada ere desinfektatu egingo da.
- Gure saioa hasi aurretik, gela ondo aireztatu dela bermatuko dugu.
- Ikasleek erabilitako musukoak botatzeko (erabilera bakarrekoak badira) zakarrontzi aproposak eskura izango dituzte.
- Saioaren ondoren, gela ondo aireztatuko da.

### **Kanpo instalakuntzetan:**

- Saioan zehar materialik ez erabiltzea lehenetsiko bada ere, materiala erabiltzeko kasuan, amaieran begiraleak dena desinfektatuko du spray eta oihala bat erabiliz. Material jakinen bat ikasle batek erabili ondoren, beste batek erabili behar bada ere desinfektatu egingo da.
- Bestelako desinfekzio eta garbiketa neurriak instalakuntzaren arabera izango dira.
- Ikasleek erabilitako musukoak botatzeko (erabilera bakarrekoak badira) zakarrontzi aproposak eskura izango dituzte.

## **d. Espazioak eta instalazioak aireztapena**

- Espazioen aireztapen naturala eta mekanikoa areagotuko da, barnean airea berritzen laguntzeko, ahal den neurrian kanpoko airearekin lan eginez, birzirkulazioa minimizatuz eta barruko aire-korronteak saihestuz.

## 3.2. Musukoaren erabilera

- Hiri edo herri inguruneetako jarduera fisiko eta kirol jarduera guztietan musukoa erabili beharko da.
- Musukoa ez da derrigorrezkoa mendi ibilaldietan.

## 3.3. Jarduerak: txapelketak, irteera eta ikastaroak, norberaren kabuz eta beste proposamenak

### 3.3.1. Txapelketak

#### a) Barne txapelketak

##### i) Ezaugarriak:

- (1) Campuseko ikasle guztiak nahasten dira.
- (2) Aire zabalean egiten dira.
- (3) Futbola eta Saskibaloia kasuan kontaktua handia dago.
- (4) Frontoi eta erraketa kirolekin kontaktua oso txikia da.

##### ii) 2020-2021 ikasturtean:

- (1) Areto futbol eta saskibaloiko barne txapelketarik ez egitea aurreikusten da. Frontoi eta erraketa kirolak antolatzen hasiko gara.

##### iii) Gure protokoloa:

- (1) Bakoitzaren materiala erabiltzea bultzatuko da, hau ezinezkoa denean materiala desinfektatuko dugu.
- (2) Eskuak garbitzeko gela emango da.
- (3) Parte hartzaile guztiei, txapelketa hasi aurretik, tenperatura neurtuko zaie.
- (4) Pertsonen arteko 1,5 metroko distantzia mantenduko da.
- (5) Musukoa erabiltzea nahitaezkoa izango da, ekintza hasi bitartean.
- (6) Erakunde antolatzaileak neurriak behar bezala betetzeaz arduratuko den osasun arloko pertsona baten edo antolatzaileak berariaz arlo horretara bideratuko duen pertsona baten, ikuskaritzapean jardungo du.
- (7) Ekintzan parte hartuko duen unibertsitateko ikasleek, lehiaketaren aurreko egunerako, kirol zerbitzuaren COVID19 klausula irakurri eta sinatu beharko dute.

#### b) Futbol 7 topaketa

##### i) Ezaugarriak

- (1) Fakultate eta campus guztietako ikasleak nahasten dira.
- (2) Aire zabalean egiten dira.
- (3) Ikasleen arteko kontaktua handia da.

**ii) 2020-2021 ikasturtean:**

- (1) Hasiera batean, futbol txapelketarik ez egitea aurreikusten da.

**iii) Gure protokoloa:**

- (1) Bakoitzaren materiala erabiltzea bultzatuko da, hau ezinezkoa denean materiala desinfektatuko dugu.
- (2) Eskuak garbitzeko gela emango da.
- (3) Parte hartzaileei, txapelketa hasi aurretik, tenperatura neurutuko zaie.
- (4) Pertsonen arteko 1,5 metroko distantzia mantenduko da.
- (5) Mosukoa erabiltzea nahitaezkoa izango da, nahiz eta pertsonen arteko distantzia mantendu. Mosukoa kendu ahal izango da beroketa eta txapelketa orduan.
- (6) Erakunde antolatzaileak neurriak behar bezala betetzeaz arduratuko den osasun arloko pertsona baten edo antolatzaileak berariaz arlo horretara bideratuko duen pertsona baten, ikuskaritzapean jardun
- (7) Ekintzan parte hartuko duen unibertsitateko ikasleek, lehiaketaren aurreko egunerako, kirol zerbitzuaren COVID19 klausula irakurri eta sinatu beharko dute.

**c) Neguko eskubaloia eta boleia topaketa**

**i) Ezaugarriak**

- (1) Fakultate eta campus guztietako ikasleak nahasten dira.
- (2) Eremu itxian egiten dira
- (3) Ikasleen arteko kontaktua eskubaloian handia da
- (4) Boleibolean ikasleen arteko kontaktua txikia da

**ii) 2020-2021 ikasturtean:**

- (1) Hasiera batean, txapelketarik ez egitea aurreikusten da

**iii) Gure protokoloa:**

- (1) Bakoitzaren materiala erabiltzea bultzatuko da, hau ezinezkoa denean materiala desinfektatuko dugu.
- (2) Eskuak garbitzeko gela emango da.
- (3) Parte hartzaileei, txapelketa hasi aurretik, tenperatura neurutuko zaie.
- (4) Pertsonen arteko 1,5 metroko distantzia mantenduko da.
- (5) Musukoa erabiltzea nahitaezkoa izango da, nahiz eta pertsonen arteko distantzia mantendu. Musukoa kendu ahal izango da beroketa eta txapelketa orduan.
- (6) Erakunde antolatzaileak neurriak behar bezala betetzeaz arduratuko den osasun arloko pertsona baten edo antolatzaileak berariaz arlo horretara bideratuko duen pertsona baten, ikuskaritzapean jardun
- (7) Ekintzan parte hartuko duen unibertsitateko ikasleek, lehiaketaren aurreko egunerako, kirol zerbitzuaren COVID19 klausula irakurri eta sinatu beharko dute.

**d) MU neguko eta udaberriko karting txapelketa**

**i) Ezaugarriak**

- (1) Fakultate eta campus guztietako ikasleak parte hartu dezakete.
- (2) Neguko txapelketa barruan eta udaberrikoa aire zabalean antolatzen dira.
- (3) Ez dago ikasleen arteko kontakturik.

**ii) 2020-2021 ikasturtean:**

- (1) Segurasun neurri eta berme guztiak hartuz, posible den heinean antolatzea aurrikusten dugu.

**iii) Gure protokoloa:**

- (1) Jarduera burutzen den enpresak covid19ko protokoloak betetzen dituela ziurtatuko dugu.
- (2) Eskuak garbitzeko gela emango da.
- (3) Parte hartzaileei, txapelketa hasi aurretik, tenperatura neurutuko zaie.
- (4) Pertsonen arteko 1,5 metroko distantzia mantenduko da.
- (5) Musukoa erabiltzea nahitaezkoa izango da, nahiz eta pertsonen arteko distantzia mantendu. Musukoa kendu ahal izango da beroketa eta txapelketa orduan.
- (6) Ekintzan parte hartuko duen unibertsitateko ikasle edo langileak, kirol zerbitzuaren COVID19 klausula irakurri eta sinatu beharko dute.

**e) MU kirol taldeak: Bolei eta Quidditch**

**i) Ezaugarriak**

- (1) Campus eta fakultate ezberdinetako ikasleak elkartzen dira
- (2) Kontaktu handia dago ikasleen artean
- (3) Eredu itxian egiten dira

**ii) 2020-2021 ikasturtean:**

- (1) Hasiera batean, MU talderik martxan ez jartzea aurreikusten da.

**f) 2. Eta 3. Hiruhilabeteetan antolatzen diren txapelketak/taldeak**

- i) MU txapelketa
- ii) Euskadiko unibertsitate arteko txapelketa (aurtegoan guri dagokigu antolakuntza)
- iii) Espainiako unibertsitate arteko txapelketa
- iv) Herri kirol topaketa
- v) Euskadiko Surf topaketa
- vi) Surf (Uhaina) eta Euskal Pilota (Zabalki) topaketa internazionalak

### **3.2.2. Irteerak eta ikastaroak**

**a) Guk antolatutako irteerak**

**a) Mendi irteerak**

**(1) Ezaugarriak**

- (a) Fakultate eta campus desberdinetako ikasleak elkartzen dira.
- (b) Aire zabalean egiten dira.
- (c) Kontakturik gabe

**(2) 2020-2021 ikasturtean:**

- (a) Hilabeteetan behin antolatuko dira mendi irteerak: Kurtzetxiki, Aitzorrotz, Anporreta, Jaizkibel, Pagazarri, Urkulu, Arrano haitz, Kurtzebarri, Txindoki, Udalaiz.

**(3) Gure protokoloa:**

- (a) Gehienez 6 pertsonako taldeak.
- (b) 2 metroko distantzia mantendu ezin denean musukoa jarrita eramango dugu.
- (c) Ez dugu materialik partekatuko
- (d) Bakoitzak behar duen janari edo edaria bakoitzak ekarriko du.
- (e) Ekintzan parte hartuko duen unibertsitateko ikasle edo langileak, kirol zerbitzuaren COVID19 klausula irakurri eta sinatu beharko dute.

**b) Kanpoko enprekin antolatutako irteerak**

**a) Espeleoabentura, Zaldiketa, Abentura parkea...**

- (1) Antolatzen duen enpresak covid 19ko protokoloak betetzen dituela ziurtatuko dugu.
- (2) Ekintzan parte hartuko duen unibertsitateko ikasle edo langileak, Kirol zerbitzuaren COVID19 klausula irakurri eta sinatu beharko dute.

**c) Campusean antolatutako ikastaroak (yoga, abdominal hipopresiboak...)**

**i) Ezaugarriak**

- (1) Fakultate eta campus desberdinetako ikasleak elkartzen dira.
- (2) Eremu itxietan egiten dira.
- (3) Kontakturik gabe
- (4) Unibertsitateko gelak erabiltzen dira saioa burutzeko.

**ii) 2020-20201 ikasturtean**

- (1) Ahal diren neurrian antolatzen saiatuko gara.

**iii) Gure protokoloa**

- (1) Parte hartzeko edukiera murriztuta egongo da. Eremu itxietan, gehieneko edukierak baimendutako edukieraren % 50 izango da.
- (2) Pertsonen artean 2 metroko distantzia mantenduko da.
- (3) Materiala, posible dela, norkberak berea ekarri beharko du. Ezin bada, materiala erabiltzaileari utzi aurretik eta ekintza amaitu eta gero desinfektatu egingo da.
- (4) Ekintzan parte hartuko duen unibertsitateko ikasle edo langileak, kirol zerbitzuaren COVID19 klausula irakurri eta sinatu beharko dute.

**d) Kanpoko enprekin antolatutako ikastaroak**

- (1) Antolatzen duen enpresak covid 19ko protokoloak betetzen dituela ziurtatuko dugu.
- (2) Ekintzan parte hartuko duen unibertsitateko ikasle edo langileak, Kirol zerbitzuaren COVID19 klausula irakurri eta sinatu beharko dute.

### **3.3.3. Norberaren kabuz**

**a) Kirol material alokairua**

**i) Ezaugarriak**

- (1) Frontoi kiroletarako materiala eta bizikletak bakarrik mailegatuko dira.
- (2) Futbol eta saskibaloiko baloiak, momentuz, ez ditugu maileguan jartzea aurreikusten.

**ii) Gure protokoloa**

- (1) Materiala mailegatuko duen pertsonaren datuak jasoko dira.
- (2) Mailegatuko den materiala:
  - (a) Erraketa eta frontoi kirolak
    - (i) Pertsonako erraketa bat hartu ahalko da.
    - (ii) Erabiltzaileari materiala eman baino lehen, desinfektatu egingo da.
    - (iii) Itzultzerako orduan, materiala alokatu duen pertsonak, eskuak gel-arekin garbitu eta materiala ere desinfektatu beharko du.
  - (b) Areta futbola eta saskibaloia
    - (i) Momentuz ez dugu aurreikusten areto futbol eta saskibaloia baloien alokairua martxan jartzea.
  - (c) Bizikleta mailegua
    - (i) Erabiltzaileak kirol zerbitzuan mailegatu beharko du bizikleta (gehienez egun bakarreko erreserbak egin daitezke).
    - (ii) Bizikleta, erabiltzaileari utzi baino lehen, desinfektatu egin beharko da.
    - (iii) Erabiltzaileak bizikleta itzultzen duenean, berriz ere desinfektatuko da.
  - (d) Ping-pong
    - (i) Momentuz ez dugu aurreikusten ping-pong materialaren alokairua martxan jartzea.

**b) Gimnasioekin hitzarmenak eta kiroldegi publikoetan abonauak**

- (1) Kanpo enpresak covid 19ko protokoloak betetzen dituela ziurtatuko dugu.
- (2) Bertaratuko den unibertsitateko ikasle edo langileak, Kirol zerbitzuaren COVID19 klausula irakurri eta sinatu beharko dute.

**c) Entrenatzaile pertsonala**

- (1) Normaltasun osoz eskainiko dugu (online ere aukera)

**d) Jarduera fisikoa gomendioak**

- (1) Arazorik gabe eskaini dezakegu, betiere osasun neurriak zaindiz

### **3.3.4. Proposamen gehiago**

**a) Kirol ikuskizunetako sarrerak**

- i) Antolatzen duen enpresak covid 19ko protokoloak betetzen dituela ziurtatuko dugu.
- ii) Ekintzan parte hartuko duen unibertsitateko ikasle edo langileak, Kirol zerbitzuaren COVID19 klausula irakurri eta sinatu beharko dute.

**b) Aste tematikoak (osasun astea, mugikortasun astea...)**

- i) Ahal den neurrian kontakturik gabeko ekintzak antolatuko dira, online ekimenak hobetsiz.

**c) Lasterketak**

- i) Online bidezko kontaktu gabeko lasterketak proposatuko dira, momentuan dagoen osasun egoerak eskatzen dituen neurriak jarraituz.

**d) Fakultate jaiak**

- i) Osasun egoeraren arabera antolatuko diren ekintzak erabakiko dira, dokumentu honetan aipatu diren ezaugarriak jarraituz.

**e) Lehiaketak**

- i) Kirol Zerbitzuak antolatzen dituen ekintza hauek, on line bidezko lehiaketak dira, hortaz, orain arte egin diren bezala antolatuko ditugu gure argazki eta bestelako lehiaketak.

**f) E-sport**

- i) Txapelketa birtual hauek, kontakturik gabeko txapelketak dira eta beraiek dituzten arautegiak jarraituz antolatuko dira.

## **3.4. Jardueren lotutako beste elementu batzuk**

### **3.4.1. Jarduerak aire zabalean**

Ahal den guztietan, jarduerak aire zabalean egingo dira.

### **3.4.2. Materialaren erabilera**

Ahal den neurrian, materialen erabilera partekatua saihestuko da. Lehiaketa/jarduerarako ezinbestekoak diren erabilera komunekeo materialei gomendatutako higie eta garbiketa neurriak aplikatuko zaizkie. Gainerako materialak (edariak, elikagaiak, sendagaiak, etab.) ezin izango dira partekatu.

Inola ere ezingo dira partekatu ur-botilak; kirolari bakoitzak bere botila eraman beharko du, norberaren izena nabarmen ikusteko moduan jarrita, nahasketarik izan ez dadin. Berdin jokatuko da saioan zehar norberak erabiltzeko bestelako kirol-materialarekin edo material osagarriarekin (toallak, petoak, etab.), kirolarien artean nahasketarik izan ez dadin. Ezingo dira partekatu janariak eta edariak, ezta mukizapiak edo antzeko elementuak ere; guztiak indibidualak izango dira.

Botikineko materiala erabiltzen denean, erabili duen pertsonak erabili eta botatzeko eskularruak jantziko ditu beti.

### **3.4.3. Aldagelak**

Aldagelak erabili behar izanez gero, jarduerako teknikariak ezarriko du babes-arauak eta pertsonen arteko distantzia fisikoa errespetatzeko sistema bat. Txandak egiten badira, jarduerak garatzeko ezarritako azpitaldeak hartuko dira kontuan.

Horrela, entrenamenduen edo lehiaketen aurretik, horiek egiten diren bitartean eta ondoren antolatu nahi izaten diren hitzaldi teknikoak, baldintzek ahalbidetzen badute, jokalekuan bertan edo kirol-instalazioen harmailetan egingo dira, aldageletan edo espazio txikiagoetan egin beharrean.

#### **3.4.4. Laguntzaileak edo ikusleak**

Instalazioetan ezingo da egon jardueran parte hartzen ari diren taldeetako kide ez den ikuslerik edo beste inor, ez lehiaketetan, ez saio edo entrenamenduetan.

Kirol-espaziora honako hauek baino ezin izango dira sartu: kirolariak eta/edo dagokion jardueran ofizialki izena emanda dauden teknikariak; lehiaketa-jardueren kasuan, epaileak, arbitroak eta antolatzaileak; kirol-erakundeetako osasun-arduradunak eta unibertsitateko arduradunak, dagokion administrazioan horrela egiaztatuta daudenak; jarduerak egiten diren kirol-instalazioetako langileak; eta administrazio publikoek baimendu dituzten beste pertsona batzuk.

Kirolariak jarduerak irauten duen denboran bakarrik egongo dira kirol-espazioetan. Jarduerak amaitu ondoren, ezingo dira kirol-espazioan gelditu.

Lehiaketetan kirol-espazioetara sartu nahi duen edonork, sar daitekeela egiaztatu beharko du lizentziaren edo ziurtagiriaren bidez.

#### **3.4.5. Kirol-praktikarako edukiera**

Kirol-instalazioetan, kirol-praktikarako gehieneko edukiera baimendutako edukieraren % 50 izango da.

Instalazioaren gehieneko edukiera instalazioaren sarreran adieraziko da. Osasun-arduradunaren erantzukizuna izango da jardueren eguneroko plangintzak edukieraren muga inoiz gaindituko ez duela gainbegiratzea.

Dena den, teknikariak kontrolatuko dute euren jarduerak burutzen ari diren kirol-espazioaren edukiera, inoiz gaindituko ez dela zainduz.

#### **3.4.6. Agurrak eta ospakizunak**

Ez dira baimenduko kontaktu fisikoa eskatzen duten agurrak eta/edo despedidak edo ospakizunak. Kirolariak ekintza horiek ukitu gabe burutzeko, talde bakoitzeko teknikariak beste modu batera egitea proposatuko dute.

#### **3.4.7. Joan-etorriak**

Ahal den guztietan, joan-etorriak modu aktiboan egitea (oinez, bizikletaz, patinetez) eta banaka edo, hala ezin bada, familia-unitatearen arabera egitea gomendatzen da.

Familia-unitate diferentetako pertsonak bidaiatu behar duten ibilgailuak erabiltzen badira, joan-etorrien esparruan administrazio eskudunak ezarritako arauak bete beharko dira.

# 4- COVID-19 KASUEN AURREAN JARDUTEKO PROZEDURA

## 4.1. Partaidearen jarduketa

COVID-19ari lotuta egon daitezkeen sintoma ohikoenetako bat duten - adibidez, 37<sup>o</sup>tik gorako sukarra, hotzikara, eztula, airea falta denaren sentazioa, usaimena eta dastamena galtzea, eztarriko mina, giharretako minak, buruko mina, ahulezia oro har, beherakoa edo gorakoa-kirolariek eta erakundeko gainerako kideek ezingo dute kirol-jarduerara joan, ezta COVID-19a diagnostikatu dietelako bakanduak daudenek, edo COVID-19aren sintomak dituen edo diagnostikatu dioten pertsona batekin harreman estua izateagatik etxean berrogeialdia betetzen ari direnek ere.

Partaideek, kirol-jarduera dagoen egun bakoitzean, hau hasi aurretik, kirolari horiek COVID-19aren sintomarik ez dutela egiaztatu eta ziurtatu beharko dute.

Halaber, etxeko norbaiti (adingabeari edo beste pertsona bati) COVID19a diagnostikatu badiote, kirol-erakundeari eta norberaren erreferentziako osasun-zentroari ohartarazi beharko diete, lanordutik kanpo bada, eta premiazko sorospena beharrezkoa bada, hauek dira Osakidetzaen Larrialdietako telefonoak: Araba: 945 244444; Bizkaia: 944 10000; Gipuzkoa: 943 461111.

Ikasturtearen hasieran, idatzizko konpromisoa hartuko dute kirol zerbitzuarekin alderdi horiek betetzeko.

Baldintza hori bera eta idatzizko konpromisoa eskatuko diete irakasle/monitorei, teknikariei, epaileei eta kirol erakundearen eskola-kiroleko jardueretan nahastuta dauden gainerako pertsonari.

## 4.2. Kirol Zerbitzuaren jarduketa

### 4.2.1. Pertsonalgoaren/parte-hartzaileen erregistro

Erakundean parte hartzen duten pertsonak identifikatzeko kontrola eramango da osasun-agintariei lana errazteko, kirol zerbitzuak jardueran parte hartzen duten pertsona guztiak erregistratuko ditu, eta hauen eguneroko asistentzia jasoko du. Ondorengo datuak bilduko dira:

- Izen-abizenak
- Fakultatea
- Taldea
- Orduetgia, instalakuntza
- Telefono-zenbakia
- Helbide elektronikoa

#### **4.2.2 Covid-19ko kasu baieztatuak**

Unibertsitateko kirolari edo pertsonaleko kide batek COVID-19an positibo ematen duenean, erakundean protokoloa betetzeko izendatutako osasun arduradunak kasua Osakidetza-ko zerbitzuetara deribatuko du, dagozkien osasun-protokoloak aplikatzeko.

Halaber, erakundeko osasun-arduraduna osasun-agintaritzaren (aztarnariak) esku jarriko da eta, hala badagokio, berekin harremanetan izan diren pertsonen informazioa emango du.

#### **4.2.3. Covid-19 sintomak jarduera aurretik**

Zuhurtasun-printzipio gisa, entrenamendu, saio edo lehiaketa bat hasi aurretik, partaide batek sukarra edo COVID-19aren sintoma argiak dituen kasuetan, honako neurri hauek hartuko dira:

- Saioak edo entrenamenduak bertan behera geratuko dira, erakundeko osasun arduradunak, osasun-agintariekin harremanetan jarri ondoren, oniritzia eman arte.
- Talde-kirol bateko partida baten aurretik gertatzen bada, parte hartzen duen kirolerakundearen osasun-arduradunak beste taldeari/erakundeari jakinaraziko dio partida nahitaez bertan behera geratuko dela. Halaber, ahalik eta azkarren, erakunde antolatzaileari ere jakinaraziko dio honek jakin dezan eta behar diren neurriak har ditzan.
- Bakarkako kirol bateko lehiaketa baten aurretik gertatzen denean, parte hartuko duen kirolerakundearen osasun-arduradunak antolakuntza-erakundeko osasun-arduradunari jakinaraziko dio positibo eman duen pertsonaren kirol-taldeko gainerako kideek ez dutela lehiaketan parte hartuko.

#### **4.2.4. Covid-19 sintomak jardueran zehar**

Kirol-jardueran zehar gaixotasunaren sintomak (sukarra, eztula, arnasteko arazoak, etab.) agertzen badira, jarduerari lotutako teknikariek kirol-erakundearen osasun-arduradunari jakinaraziko diote. Partaideak bere osasun-zentroarekin harremanetan jarriko da, eta bertan baloratuko da egoera. Baloratu arte, pertsona bakandua mantenduko da. Gaixotasunaren sintomak kirol-erakundeko gainerako pertsonetan agertzen badira, haiek ere etxera joan beharko dute eta gomendio berberak bete beharko dituzte.

Erakundeko osasun-arduradunak, egoera zein den ikusita, une horretan bertan jarduera bertan behera geratuko den edo aurrera jarrai dezakeen aztertuko du. Bigarren kasu horretan, jardueraren teknikariei prebentzio- eta higiene-neurriak zorrotz ditzaten eskatuko die: kontakturik gabeko jarduerak eta pertsonen arteko distantziak handitu, maskararen erabilera derrigortu (intentsitate txikiko jarduerak gauzatzea), eskuen eta gorputzeko beste atal batzuen higiene-neurriak maiztasun handiagoz hartzea, etab. Teknikariek muturreko neurri horiek euren kabuz hartu beharko dute, kutsatzeko aukera edo arrisku txikiena dagoela uste dutenean.

#### **4.2.5. Erakundeko beste pertsona batzuekin komunikazioa**

Erakundearen barruan gertatutako COVID-19ari lotutako kasu edo egoera baten aurrean, erakundeko beste eragile batzuei jakinarazi behar dietenean, jakinarazpen hori, kasu bakoitzaren arabera, osasun-agintariek edo kirol-erakundeak berak egingo dute. Bigarren kasuan, jakinarazpena osasun-arduradunak egingo du beti (ez teknikariek).

## **5- DIZIPLINA-NEURRIAK ETA HAUEK BETETZEN DIRELA KONTROLATZEA**

Kirol Zerbitzuaren esku geratzen da edozein diziiplina edo osasun neurri hautsiz gero izan ditzakeen ondorioak zehaztea eta jakinaraztea.

## 6- PROTOKOLOA ETA HARTUTAKO NEURRIAK HEDATZEA ETA EZAGUTZEA

Protokolo hau eta bere eraginpean dauden pertsona guztiek hartu beharreko neurriak ezagutzen direla bermatzeko, Kirol Zerbitzuak, protokoloak eta neurriak zabaltzeko eta ezagutzera emateko bitarteko hauek erabiliko ditu:

### *HEDAPEN OROKORRA*

- Orokorrean, parte hartzaile guztiei eta Kirol Zerbitzuko egitura osatzen duten pertsona guztiei —langileak eta boluntarioak— mezu elektroniko bat igorriko zaie. Bertan, protokolo hau onartu dela jakinaraziko zaie eta protokoloa bera modu eraginkorrean aplikatzeko laguntza eskatuko zaie.
- Kirol Zerbitzuaren web gunean ([www.mondragon.edu/eu/kirolak](http://www.mondragon.edu/eu/kirolak)), datu hauek bilduko dituen espazio espezifikoak jarri da:
  - o Kirol Zerbitzuko osasun-arduradunaren (fakultate bakoitzeko arduraduna) izena eta harekin zuzenean harremanetan jartzeko modua (telefonoa eta posta elektronikoa)
  - o Parte hartzaileendako, teknikarientzako, epaileentzako, osasun arduradunarentzako eta erakundeko arduradunarentzako sortutako informazio materiala eta protokoloa, baita egokitzen jotzen den gaiari lotutako beste edozein dokumentazio ere.

### *JAKINARAZPEN/SENTSIBILIZAZIO ESPEZIFIKOAK*

Eragile edo kolektibo mota bakoitzerako informazio-materialen teknikariek eta epaileek sinatu beharreko konpromisoak adierazten dira jarraian:.

- **Parte hartzaileak**, jarduerak hasi aurretik:
  - o Posta elektroniko bidez igorriko dena:
    - Erakundearen protokolora web guneko linka.
    - Partaideentzat sortutako informazio-materiala, euren obligazioak, erantzukizunak eta eskubideak ezagutzeko.
    - Prebentzio-neurriak eta parte-hartze baldintzak ezagutzeko, onartzeko eta haiekin konprometitzeko dokumentua. Jarduerak hasi aurretik sinatu eta erakundeari entregatu beharko zaio.
- Erakundeko **teknikariak**, jarduerak hasi aurretik:
  - o Posta elektroniko bidez igorriko dena:
    - Erakundearen protokolora web guneko linka.

- Teknikarientzako sortutako informazio-materiala, euren obligazioak, erantzukizunak eta eskubideak ezagutzeko.
  - Partaideentzako sortutako informazio-materiala, teknikariek euren ardurapean dituzten kirolariei lehen saioan/entrenamenduan jakinarazteko.
  - Derrigorrezko higie-ne eta prebentzioko neurri pertsonalak ezagutzeko, onartzeko eta haiekin konprometitzeko dokumentua. Jarduerak hasi aurretik sinatu beharko dute.
- Erakundeko **epaileak**:
- Lehiaketak hasi aurretik, posta elektroniko bidez edo fisikoki, dokumentu hauek banatuko dizkiegu:
    - Epaileentzako sortutako informazio-materiala, euren obligazioak, erantzukizunak eta eskubideak ezagutzeko.
    - Derrigorrezko higie-ne eta prebentzioko neurri pertsonalak ezagutzeko, onartzeko eta haiekin konprometitzeko dokumentua. Jarduera hasi aurretik sinatu beharko dute.

Erakundearen erabakiz edo agintari eskudunen arau edo ildo berrien ondorioz protokoloan egiten den edozein aldaketaren berri eraginpean dauden pertsona guztiei emango zaie posta elektroniko-z, gutxienez. Halaber, aldaketak oso garrantzitsuak badira edo hasieran hartutako neurriak asko aldatzen baditugu, bilera telematikoak egin ahal izango dira aldaketa horiek azaltzeko/hedatzeko. Gerora, aldaketa horien berri kirolariei emango zaie, zuzenean familien eta teknikarien bitartez.

## 7- EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

Egoera berria dela kontuan hartuz, funtsezkoa da hartutako neurriak eta hautemandako jarrerak eta jokabideak etengabe ebaluatzea eta haien jarraipena egitea. Hala, erakundearen maila guztietan taldekako balorazioak edo bilerak planteatuko dira.

### *ZUZENDARITZA-ORGANOAREN BILERAK*

Osasun-arduradunak erakundearen zuzendaritza- edo administrazio-organoaren bileretan hartuko du parte. Bilera horietako gai-zerrendan COVID-19ari aurre egiteko erakundearen jarduketak eta egoera baloratzeko puntu bat ezarriko da.

Ikasturte honetako egoera berezia denez, hilabete bakoitzean gutxienez bilera bat egingo da. Edozein unetan ezohiko bileretarako deialdia egin ahal izango da edo bilerak maizago egin ahal izango dira, hala egitea beharrezkoa dela ikusten bada, batez ere ikasturtearen hasieran.

### *BILERAK TEKNIKARIEKIN*

Ikasturtea hasi ondoren, teknikariek bilera telematikoak egingo dira egoeraren balorazioa egiteko, neurriak zuzen aplikatzen ari direla ziurtatzeko, haiek egokitze —behar izanez gero—, eta sor daitezkeen zalantzak argitzeko.

### *TEKNIKARIEN ETA KIROLARIEN ARTEKO BILERAK*

Asteko lehen saioan teknikariek taldean egiteko balorazio labur parte-hartzaile bat planteatuko dute, COVID-19ari aurre egiteko neurrien funtzionamendua aztertze eta, hala badagokio, jarrerak eta jokabideak zuzentzeko.

## 8- ERANSKINAK

### ERANSKINA 1

#### ERANTZUNKIZUN ADIERAZPEN AGIRIA

**Izena:**

**Abizenak:**

**NANa:**

**Telefonoa:**

**Posta elektronikoa:**

**Parte hartuko duzun ekintza:**

COVID-19a dela eta, beharrezkoa da osasun autoritateek ezarritako protokoloak jarraituz, neurri batzuk hartzea. Neurri horiek betetzeko beharrezkoa da antolatzaileen eta parte hartzaileen konpromezua. Dokumentu hau irakurtzea eta onartzea beharrezkoa da kirol zerbitzuak antolatutako ekintzan parte hartzeko.

#### ADIERAZTEN DUT:

1. Dokumentu honetan agertzen diren betebeharrak edo gomendioak betetzera konprometitzen naizela. Baita, ekintza egunetan antolakuntzak emandako aginduak betetzera Covid19 gaixotasunaren hedapena ekiditeko.
2. Ez naizela egon Covid 19a duen inorekin kontaktuan, sintoma gabeak ere kontuan hartuta, gutxienez ekintzaren hasiera eguna baino lehenagoko 14 egunetan.
3. Coronavirus infekzioaren sintoma susmagarriak ez ditudala: sukarra, nekea, eztula, eztarriko mina, arnasa hartzeko eragozpenak, dastamen edo usaimen falta edo osasunean izandako beste edozein aldaketa nahiz eta diagnostikatuta ez egon.
4. Arrisku egoeran ez nagoela indarrean dauden araudien arabera.
5. Kirol Zerbitzua berehala informatuko dudala Covid19arekin zer ikusia duen edozein osasun aldaketa ematen bada, ekintza hasieraren aurreko egunetan edo ondorengoetan eman daitekeena.

Sinadura:

.....-(e)n.....ko.....ren.....(e)an.

*Datuen babeserako erreglamendu orokorraren (RGPD) arabera, adierazpen honetan jasotako datuak kirol zerbitzuaren ardurapean dagoen artxibo batera pasako dira COVID19aren prebentziorako arautegia bete dadin.. Nahi izanez gero zure izen ematea ezabatu, datuen zuzenketa, ezabatze eta erabileraren mugatze eskubideak erabil ditzakezu [kirolak@mondragon.edu](mailto:kirolak@mondragon.edu) helbidera mezu bat bidaliz*